

Irizar erakunde babesle izango da apirilean Euskadin egingo den Hiri eta Herri Jasangarrien Europako 8. Konferentzian

- Autobusak eta autokarrak egiten dituen Irizar euskal enpresak bat egingo du apirilaren 27tik 29ra Euskadi Europako toki jasangarritasunaren topaleku bilakatuko duen eragile publikoen eta pribatuen sare europarrarekin.
- ICLEIK – Jasangarritasunaren aldeko Tokiko Gobernuen Elkarteak, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak, Udalsarea 21ekin batera, antolatu duten nazioarteko topaketaren enpresa babeslea izango da Irizar.

Gasteizen, 2016/01/29

Autobusen eta autokarren diseinuan eta fabrikazioan aritzen den Irizar euskal enpresa, 2016ko apirilaren 27tik 29ra Euskadin egingo den Hiri eta Herri Jasangarrien Europako 8. Konferentziaren babesle bilakatu da. Irizar enpresak ekitaldi horretan parte hartzeak agerian uzten du garraioarekin lotutako sektore pribatuak hiri garapen jasangarriarekin eta ekintza eraldatzaileak gauzatzearekin duen konpromisoa.

Irizar etxeak Hiri eta Herri Jasangarrien Europako 8. Konferentziaren enpresa babesle gisa parte hartzea beste pauso bat da enpresa hori mugikortasun jasangarriaren eta hiri inguruneetan aplika daitezkeen energia eraginkortasuneko proiektu berritzaileen garapenaren alde egiten ari den apustuan.

Irizarrek egindako lanaren barruan azpimarragarria da hirirako i2e autobusaren diseinua, trakzioari zein klimatizazioari dagokienez %100 elektrikoa den konpainiaren lehenengo ibilgailua. Proiektua, Irizar Taldeko enpresen eta Teknologiarren Euskal Sareko zentro teknologikoen arteko lankidetzaren emaitza da. "i2e modeloa, ohiko diesel autobusarekin alderatuz karbono aztarna %86 murrizteko aukera ematen duen proiektu berritzailea da, eta bere materialen %90etik gora berreskuratu eta birziklatu ahal izateko diseinatu da. Autobus horrek, Europa barruan hiri mugikortasun jasangarria eta arduratsua finkatzeko Euskadin egiten ari den esfortzua erakusten du", adierazi du Hector Olabegogeaokoetxeak, Irizarreko Elektromugikortasun Programaren arduradunak.

Irizar konferentziaren erakunde babesleen artean sartu izanak, gainera, hiri garapen jasangarriarako harreman publiko-pribatu eredia bultzatzen du. Bertan, enpresak, ekintza eraldatzaileak bultzatzeko gai diren oinarritzko eragile gisa agertzen dira. "Irizarrek Hiri eta Herri Jasangarrien Europako 8. Konferentziari ematen dion laguntzak argi eta garbi erakusten du euskal enpresek klimaren aldaketaren kontrako borrokarekin duten konpromisoa eta lankidetzak publiko-pribatuak, bertako biztanleentzat bizitza kalitate hobea eskainiko duten hiri eta herri



eraginkorragoak, lehiakorragoak eta erabilerrazagoak bultzatzeko duen potentziala”, adierazi du Ana Oregik, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailburuak.

Hiri jasangarritasunaren aldeko euskal apustua

Aurreikuspenen arabera, lurralde gobernuetako, Europako eta nazioarteko instituzioetako, alde anitzeko erakundeetako, ikerketa komunitateko, sektore pribatuko eta gizarte zibileko 1.000 ordezkari inguruk hartuko dute parte Hiri eta Herri Jasangarrien Europako 8. Konferentzian. Nazioarteko 100 hizlari eta aditu inguru arituko dira, eta bertaratutako guztiek esperientziak trukatzeko eta tokiko gobernantza, hirien potentziala, hiri ekoizlea edo Europarako Hiri Agenda berria bezalako gaiari buruz eztabaidatzeko aukera izango dute.

Konferentzia hori, toki jasangarritasunari buruzko eztabaidarako eta esperientzien trukaketarako kontinenteko hitzordu nagusia izango da, 2015eko Garapenerako Agenda martxan jartzeko NBEren Goi Bilerari eta abenduan Parisen egin zen Klimaren Aldaketarako Aldeen Konferentziari (COP21) jarraipena emanez.

Hiri eta Herri Jasangarrien Europako 8. Konferentzia, ICLElk – Jasangarritasunaren aldeko Tokiko Gobernuen Elkarteak, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak antolatu dute, Udalsarea 21en –Jasangarritasunaren aldeko Udalerrien Euskal Sarearen, partaidetzarekin eta Arabako Foru Aldundiaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Donostiako Udalaren eta Gasteizko Udalaren laguntza du.

Ekitaldiaren egitarau osoari buruzko informazio guztia Hiri eta Herri Jasangarrien Europako 8. Konferentziako webgune ofizialean dago: www.basquecountry2016.eu